FASE 3: Resolución del procedimiento ( 7 días laborales)




***Orden del Rector 27/2017, de 27 de septiembre, por la que se modifica la Orden del Rector 27/2016, de 30 de noviembre de 2016, por la que se establecen las normas sobre calificaciones.***

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Orden vigente por la que se establecen las normas sobre calificaciones recoge en su artículo 4 lo relativo a la comunicación y confirmación de las mismas.

Se ha procedido a modificar el artículo 4.1 a fin de identificar adecuadamente los días hábiles e inhábiles para computar los plazos de entrega de calificaciones.

Por esta razón, cumplidos los trámites preceptivos, y oído el Consejo de Dirección, DISPONGO:

**Uno.** Artículo 4. Comunicación y confirmación de calificaciones

Donde decía:

«4.1. Las calificaciones serán enviadas a Secretaría General, por los cauces electrónicos establecidos al efecto, en el plazo de doce días naturales contados a partir de la fecha de finalización de los procesos de evaluación aprobados para cada asignatura en convocatoria ordinaria, y de diez días en convocatoria extraordinaria. Los períodos vacacionales señalados en el calendario laboral para el personal docente de la universidad no computarán a efectos del plazo de entrega de las calificaciones.»

Debe decir:

«4.1. Las calificaciones serán enviadas a Secretaría General, por los cauces electrónicos establecidos al efecto, en el plazo de doce días naturales contados a partir de la fecha de finalización de los procesos de evaluación aprobados para cada asignatura en convocatoria ordinaria, y de diez días en convocatoria extraordinaria. Los períodos señalados en el calendario escolar como vacacionales para los estudiantes (Navidad, y

3. FASEA: Prozeduraren ebazpena (7 lanegun)




***Erretorearen 27/2017 Agindua, irailaren 27koa, kalifikazioen arauak ezarri zituen Erretorearen 27/2016 Agindua, azaroaren 30ekoa, aldatzen duena.***

ZIOEN AZALPENA

Kalifikazioei buruz indarrean dagoen Aginduaren 4. artikuluan noiz eta nola jakinarazi eta berretsi behar diren kalifikazioak zehazten da.

Bada, 4.1 artikulua aldatu da argi identifikatzeko zein diren egun baliodunak eta zein baliogabeak kalifikazioak emateko epea zehazteko orduan.

Hori dela eta, beharrezko izapideak beteta eta Zuzendaritza Kontseiluari entzun ondoren, honako hau XEDATU DUT:

**Bat.** 4. artikulua. Kalifikazioen jakinarazpena eta berrespena

Hau zioen lekuan:

«4.1. Kalifikazioak Idazkaritza Orokorrera bidaliko dira, horretarako ezarritako bide elektronikoak erabiliz, irakasgai bakoitzeko ebaluazio prozesua amaitzeko onartutako datatik hasi eta hamabi egutegi-egunen barruan ohiko deialdian eta hamar egunen barruan ezohiko deialdian. Unibertsitateko irakasleen lan egutegian ezarritako oporraldiak ez dira zenbatuko kalifikazioak emateko epea kalkulatzeko orduan.»

Honako hau esan behar du:

«4.1. Kalifikazioak Idazkaritza Orokorrera bidaliko dira, horretarako ezarritako bide elektronikoak erabiliz, irakasgai bakoitzeko ebaluazio prozesua amaitzeko onartutako datatik hasi eta hamabi egutegi-egunen barruan ohiko deialdian eta hamar egunen barruan ezohiko deialdian. Eskola egutegian ikasleentzat opor gisa ageri diren epeak (Gabonak, eta Aste Santua eta Pazko Astea) eta abuztua ez dira

Semana Santa y Pascua) y el mes de agosto no computarán a efectos del plazo de entrega de las calificaciones.»

**Dos.** Texto refundido

Se realizará un texto refundido del articulado de las Normas de Calificaciones, en los términos aprobados mediante la presente Orden, que se acompañará como Anexo.

**ANEXO**

***Orden del Rector 27/2017, de 27 de septiembre, por la que se modifica la Orden del Rector 27/2016, de 30 de noviembre de 2016, por la que se establecen las normas sobre calificaciones.***

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La revisión de la normativa académica que rige en los estudios universitarios de primer ciclo y segundo ciclo regulados por el RD 1393/2007, de 29 de octubre, y sus equivalentes en estudios eclesiásticos, así como en los planes de estudio conducentes a títulos propios de esta Universidad, llevada a cabo con la finalidad de dotar al conjunto de una estructuración más ágil y operativa, reformulando y completando su contenido a la luz de la experiencia adquirida durante los cursos de impartición, ha abarcado también, naturalmente, a las normas sobre calificaciones establecidas por la Orden del Rector 18/2013, de 20 se septiembre.

Como resultado de la tarea, se ha detectado la necesidad de ampliar el artículo dedicado al sistema de calificaciones con una norma que rija la valoración de los requisitos adicionales que los estudiantes deben cumplir, en unos casos para ingresar en determinados planes de estudio, o en otros casos para obtener el título, según se disponga en la Memoria de aprobación de los estudios.

Igualmente, la inclusión en los nuevos planes de estudio de la posibilidad de realizar Prácticas externas extracurriculares, que constarán en las certificaciones académicas del estudiante y, si fuera el caso, en su Suplemento Europeo al título (SET), siempre que la evaluación obtenida en ellas haya sido favorable, plantea también la necesidad de ampliar el mismo artículo con una norma que establezca los términos con los que serán calificadas.

Por otra parte, en aras a la coherencia interna que debe regir en todo el conjunto normativo, es necesario dar nueva redacción a la norma que establece los plazos de confirmación de calificaciones.

Por estas razones, cumplidos los trámites preceptivos, a propuesta de la Vicerrectora de Ordenación Académica, Innovación Docente y Calidad y del Secretario General, y oído el Consejo de Dirección, DISPONGO:

**Artículo 1.** Ámbito de aplicación

Las normas contenidas en la presente Orden serán de aplicación a todas las asignaturas, considerando también como tales a las actividades prácticas curriculares y pruebas de evaluación global, de los planes de estudio conducentes a la obtención de títulos universitarios, tanto sean oficiales como propios de la Universidad de Deusto. Salvo al título de Doctor

kontuan hartuko kalifikazioak emateko epea kalkulatzeko orduan.

**Bi.** Testu bategina

Kalifikazioen arauen testu bategina egingo da, Agindu honetan onartutako moduan, eta Agindu honi erantsiko zaio.

**ERANSKINA**

***Erréktorearen 27/2017 Agindua, irailaren 27koa, kalifikazioen arauak ezarri zituen Erréktorearen 27/2016 Agindua, azaroaren 30ekoa, aldatzen duena.***

ZIOEN AZALPENA

1393/2007 Errege Dekretuak, urriaren 29koak, araututako unibertsitateko lehen eta bigarren zikloko ikasketak, haien baliokide diren eliz ikasketak eta Unibertsitate honetako titulu propioak lortzera bideratutako ikasketa planak zuzentzen dituen araudia berraztertu da, ikasketa horiei guztiei egitura arinagoa eta eraginkorragoa emateko, araudiaren edukia birformulatuz eta osatuz, ikasketa horiek eman diren urteetan hartutako esperientzian oinarrituta. Araudiaren errebisio horrek Errektorearen 18/2013 Aginduan ezarritako kalifikazio arauak ere aztertu ditu.

Azterketaren emaitzen artean, beharrezko ikusi da kalifikazio sistemari buruzko artikulua garatzea, ikasketen onarpen Txostenean adierazitakoaren arabera, ikasketa plan batzuetan sartzeko eta beste batzuetan titulua eskuratzeko ikasleek bete behar dituzten eskakizun gehigarrien balorazioa arautzeko.

Era berean, ikasketa plan berrietan curriculumetik kanpoko praktikak egiteko aukera sartzeak nahitaezkoa egiten du artikulu bera garatzea praktika horiek kalifikatzeko terminoak arautzeko; izan ere, curriculumetik kanpoko praktikak ikaslearen ikasketen ziurtagirietan agertuko dira, baita Tituluaren Europar Gehigarrian (TEG) ere, baldin eta ebaluazioa aldekoa bada.

Beste alde batetik, araudiak izan behar duen barneko koherentziari begira, beharrezkoa da kalifikazioak berresteko epeak ezartzen dituen araua berriro idaztea.

Horrenbestez, beharrezko izapideak eginda, Ikasketen Antolamenduko, Irakaskuntzaren Berrikuntzako eta Kalitateko Errektoreordearen eta Idazkari Nagusiaren ekimenez, eta Zuzendaritza Kontseiluari entzunda, honako hau XEDATU DUT:

**1. artikulua.** Aplikazio eremua

Agindu honetako arauak Deustuko Unibertsitateko titulu ofizial zein propioak lortzera bideratutako ikasketa planetako irakasgai guztietan aplikatuko dira, eta halakotzat hartuko dira curriculumeko jarduera praktikoak eta ebaluazio globaleko probak ere. Doktore titulua, ordea, arau hauetatik kanpo geratzen da, doktoregoari buruzko legeria orokorrean

o Doctora, que se regirá por lo establecido en la legislación general vigente al caso.

**Artículo 2.** Sistema de calificaciones

2.1. La valoración del rendimiento acreditado por el estudiante en cada una de las asignaturas del plan de estudios se expresará en una calificación numérica, de 0 a 10, con un decimal, y con la calificación cualitativa que le corresponda en función de la siguiente escala:

| Cualitativa | Numérica | |
|---|---|---|
| | Valor mínimo | Valor máximo |
| Suspenso | 0,0 | 4,9 |
| Aprobado | 5,0 | 6,9 |
| Notable | 7,0 | 8,9 |
| Sobresaliente | 9,0 | 10,0 |

2.2. La mención de «Matrícula de Honor», que representa una distinción de los rendimientos más sobresalientes en el conjunto de estudiantes que han matriculado y cursado la misma asignatura en el mismo periodo académico, podrá ser otorgada a los estudiantes que hayan obtenido una calificación igual o superior a 9,0. Su número no podrá exceder del cinco por ciento de los estudiantes matriculados en la asignatura en el correspondiente curso académico, salvo que el número de matriculados sea inferior a 20, en cuyo caso podrá concederse una sola «Matrícula de Honor».

2.3. Dado el significado de «Matrícula de Honor», esta mención no podrá ser trasladada a una asignatura que resulte reconocida por otra u otras previamente cursadas que obtuvieron tal mención, y su calificación será Sobresaliente, con la puntuación obtenida en la asignatura o asignaturas origen del reconocimiento. Tampoco podrá otorgarse a los estudiantes que realizan estudios en intercambio o en modalidad de visitantes en la UD, por no estar matriculados en asignaturas de planes de estudio conducentes a la obtención de un título, sino inscritos en ellas.

2.4. Los créditos y asignaturas que sean objeto de reconocimiento en razón de estudios previamente cursados se calificarán en aplicación de los criterios de reconocimiento establecidos en la Normativa Académica vigente al caso.

2.5. Atendiendo al valor formativo conjunto de los estudios realizados en programas de movilidad de estudiantes, tal como dispone el Estatuto del Estudiante Universitario (RD 1791/2010, art. 17), la calificación de los créditos reconocidos será la que resulte de calcular la nota media, ponderada por créditos, de las calificaciones obtenidas en las asignaturas o actividades contempladas en el respectivo acuerdo de intercambio, una vez aplicada la tabla de correspondencia entre ambos sistemas de calificaciones que habrá sido incorporado al convenio de intercambio. La puntuación de los créditos calificados con suspenso, si fuera el caso, será igualmente la media ponderada de las calificaciones obtenidas en las asignaturas o actividades no superadas.

2.6. Cuando sea necesario puntuar calificaciones de expedientes en los que solo haya constancia de su valor cualitativo, por corresponder a regulaciones que no contemplaban calificación cuantitativa, se les aplicarán los siguientes valores estándar:

Aprobado: 6, Notable: 8, Sobresaliente: 9,5, Sobresaliente-Matrícula de Honor: 10.

ezarritakoari lotuta.

**2. artikulua.** Kalifikazio sistema

2.1. Ikasleak ikasketa planeko irakasgai bakoitzean erakutsitako errendimenduaren balioespena zenbakizko eta hitzezko kalifikazioen bidez adieraziko da. Zenbakizko kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da eta hamartar batekin emango da. Hitzezko kalifikazioa eskala honen arabera emango da:

| Hitzezkoa | Zenbakizkoa | |
|---|---|---|
| | Gutxienezko balioa | Gehienezko balioa |
| Gutxiegi | 0,0 | 4,9 |
| Nahikoa | 5,0 | 6,9 |
| Oso ongi | 7,0 | 8,9 |
| Bikain | 9,0 | 10,0 |

2.2. Ohorezko matrikularen aipamena irakasgaia ikastaldi berean matrikulatu eta egin duten ikasleen artean errendimendurik bikainena izan duten ikasleak nabarmentzeko modua da eta 9,0 puntuko edo gehiagoko kalifikazioa lortu dutenei eman dakieke. Ikasturtean irakasgaian matrikulatuta dauden ikasleen % 5i eman dakioke gehienez, baina matrikulatutakoen kopurua 20 baino gutxiago bada, «Ohorezko matrikula» bakarra eman ahal izango da.

2.3. Ohorezko matrikularen esangura kontuan izanik, aipamen hori ezin izango da eman ikasleak lehenago egindako irakasgai batengatik irakasgai bat aitortzen bazaio, nahiz eta irakasgai hartan aipamena lortu. Halakoetan kalifikazioa bikain izango da eta puntuazioa lehenago egindako irakasgaian lortutakoa. Deustuko Unibertsitatean trukean edo bisitari moduan ikasten duten ikasleei ere ezin izango zaie ohorezko matrikularik eman, ez daudelako matrikulatuta titulu bat lortzera bideratutako ikasketa planetako irakasgaietan, inskribatuta baizik.

2.4. Lehenago egindako ikasketak aintzat hartuta ikasleei kredituak edo irakasgaiak aitortzen bazaizkie, irakasgai horiek kalifikatzeko orduan, indarrean dagoen araudi akademikoan kredituak eta irakasgaiak aitortzeko ezarritako irizpideak erabiliko dira.

2.5. Ikasleen mugikortasun programetan egindako ikasketek guztira duten prestakuntza-balioa kontuan hartuta, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuan xedatutako moduan (1791/2010 ED, 17. art.), aitortutako kredituen kalifikazioa honako hau izango da: trukeko hitzarmenean aurreikusitako irakasgai edo jardueretan lortutako kalifikazioen batez besteko nota, kredituen arabera ponderatuta. Halakoetan, hitzarmenean bi kalifikazio sistemen arteko korrespondentzia taula erantsiko da eta horixe aplikatuko da kalifikazioa kalkulatu aurretik. Gutxiegi kalifikazioa duten kredituen puntuazioa ere gainditu gabeko irakasgai edo jardueretan lortutako kalifikazioen batez besteko ponderatua izango da.

2.6. Hitzezko balioa baino ez duten espedienteetako kalifikazioak puntuatu beharra badago (haien sisteman zenbakizko kalifikaziorik ez delako erabiltzen), balio estandar hauek erabiliko dira:

Nahikoa: 6, Oso ongi: 8, Bikain 9,5, Bikain-Ohorezko matrikula: 10.

2.7. Las Facultades, cumpliendo los trámites preceptivos, podrán establecer las normas para la evaluación por compensación, mediante Tribunales que enjuicien en su conjunto la trayectoria académica del estudiante y decidan si ha alcanzado un nivel de conocimientos y competencias suficiente que le permita obtener el título al que opta. En los casos de resolución favorable, en la calificación de la asignatura objeto de compensación se hará constar «aprobado por compensación», con la calificación numérica de 5,0.

2.8. Los contenidos y competencias que el estudiante deberá justificar para cumplir los requisitos establecidos en la memoria de verificación del título, bien para ingresar en el plan de estudios a él conducente, bien para obtener finalmente dicho título, serán evaluados en términos de Apto o No apto.

2.9. Las Prácticas externas extracurriculares serán evaluadas en términos de Apto o No apto.»

**Artículo 3.** Nota media

3.1. La media del expediente académico de cada alumno será el resultado de la aplicación de la siguiente fórmula: suma de los créditos obtenidos por el alumno multiplicados cada uno de ellos por el valor de las calificaciones que correspondan, y dividida por el número de créditos totales obtenidos por el alumno (RD 1125/2003).

3.2. Los créditos obtenidos por reconocimiento de asignaturas que en razón del origen del reconocimiento no llevan incorporada calificación, no computarán a efectos del cálculo de la nota media (experiencia laboral o profesional, estudios universitarios no oficiales o estudios oficiales no universitarios, actividades extracurriculares y aquellas otras que puedan regularse) (RD 861/2010).

3.3. A fin de evitar inconvenientes o desventajas en circunstancias de concurrencia competitiva a los titulados por la UD en cuyos expedientes no figura la nota media o lo hace en baremo 1 a 4 por razón de la regulación vigente en los planes de estudio cursados, se les proporcionará, a solicitud del interesado en Secretaría General, acreditación de la nota media en baremo 0 a 10 que resulte de aplicar la fórmula y, en su caso los valores estándar, que se fijan en esta Orden.

**Artículo 4.** Comunicación y confirmación de calificaciones

4.1. Las calificaciones serán enviadas a Secretaría General, por los cauces electrónicos establecidos al efecto, en el plazo de doce días naturales contados a partir de la fecha de finalización de los procesos de evaluación aprobados para cada asignatura en convocatoria ordinaria, y de diez días en convocatoria extraordinaria. Los períodos señalados en el calendario escolar como vacacionales para los estudiantes (Navidad, y Semana Santa y Pascua) y el mes de agosto no computarán a efectos del plazo de entrega de las calificaciones.

4.2. En cumplimiento de lo dispuesto en el Estatuto del Estudiante Universitario, dentro del plazo y de los procedimientos establecidos por la universidad, los profesores responsables de la evaluación publicarán las calificaciones de las pruebas efectuadas, con la antelación suficiente para que los estudiantes puedan llevar a cabo la revisión con anterioridad a la finalización del plazo de confirmación o entrega de las calificaciones en Secretaría General.

4.3. Junto a las calificaciones y por los cauces establecidos al efecto, se publicará el lugar, fecha y horario en que tendrá

2.7. Fakultateek, arauzko izapideak betez, konpentsazio bidezko ebaluaziorako arauak ezarri ahal izango dituzte, epaimahai batek, ikaslearen ibilbide akademiko osoa aintzat harturik, titulua lortzeko behar beste ezaupide eta gaitasun bereganatu dituen epaitu dezan. Aldeko ebazpena emanez gero, konpentsazioz ebaluatutako irakasgaiaren kalifikazioan «Nahikoa konpentsazioz» jarriko da eta haren zenbakizko kalifikazioa 5,0 izango da.

2.8. Tituluaren egiaztapen txostenean ezarritako eskakizunak betetzeko ikasleak frogatu beharko dituen edukiak eta gaitasunak, dela ikasketa planean sartzeko, dela titulua eskuratzeko, Gai eta Ez gai terminoekin ebaluatuko dira.

2.9. Curriculumetik kanpoko praktikak Gai eta Ez gai terminoekin ebaluatuko dira.

**3. artikulua.** Batez besteko nota

3.1. Ikasle bakoitzaren ikasketa-espedientearen batez besteko nota formula hau erabiliz aterako da: lortutako puntuazio bakoitza bider dagozkion kredituak eta biderkadura horien batura zati ikasleak guztira eskuratu dituen kredituak (1125/2003 ED).

3.2. Lan edo lanbide esperientziagatik, ofizialak ez diren unibertsitate ikasketengatik, unibertsitatekoak ez diren ikasketa ofizialengatik, curriculumetik kanpoko jarduerengatik eta gerora arautu litezkeen bestelako jarduerengatik ikasleari irakasgairen bat aitortzen bazaio (861/2010 ED), hala lortutako kredituek ez dute kalifikaziorik izango eta, hortaz, ez dira kontuan hartuko ikasketa-espedientearen batez bestekoa egiteko.

3.3. Beste batzuekin lehiatu behar izanez gero eragozpenik edo desabantailarik izan ez dezaten, espedientean batez besteko notarik ez duten DUko tituludunei edo 1etik 4ra bitarteko baremoaren araberako batez bestekoa dutenei, Idazkaritza Orokorrean eskatuz gero, 0tik 10era bitarteko baremoaren araberako batez bestekoaren agiria emango zaie. Horretarako, agindu honetan ezarritako formula eta balio estandarrak (besterik ezean) aplikatuko dira.

**4. artikulua.** Kalifikazioen jakinarazpena eta berrespena

4.1. Kalifikazioak Idazkaritza Orokorrera bidaliko dira, horretarako ezarritako bide elektronikoak erabiliz, irakasgai bakoitzeko ebaluazio prozesua amaitzeko onartutako datatik hasi eta hamabi egutegi-egunen barruan ohiko deialdian eta hamar egunen barruan ezohiko deialdian. Eskola egutegian ikasleentzat opor gisa ageri diren epeak (Gabonak, eta Aste Santua eta Pazko Astea) eta abuztua ez dira kontuan hartuko kalifikazioak emateko epea kalkulatzeko orduan.

4.2. Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuan xedatutakoa betez, unibertsitateak ezarritako epe eta prozeduren barruan, ebaluazioaren ardura duten irakasleek behar beste denboraz argitaratuko dituzte proben kalifikazioak, ikasleek berrikusteko aukera izan dezaten kalifikazioak berresteko eta Idazkaritza Orokorrean entregatzeko epea amaitu aurretik.

4.3. Kalifikazioekin batera, haien gaineko kontsulta egiteko lekua, eguna eta ordua argitaratuko dira, horretarako eza-

lugar la consulta de las calificaciones antes de la confirmación definitiva.

4.4. Los profesores responsables de la firma de las Actas de calificación acudirán a Secretaría General, en los plazos que ésta establezca, para la cumplimentación de las mismas. En los casos de imposibilidad justificada, contando con el visto bueno del Decano de la Facultad, el Acta será firmada por el Director de Departamento al que estuviera adscrito el profesor o, en su caso, por quien designe el Decano.

4.5. Los profesores deberán conservar el material escrito, en soporte papel o electrónico, u otro tipo de evidencias, que haya sido objeto de prueba de evaluación, hasta la finalización del curso académico siguiente.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Única.** Las referencias a personas, colectivos o cargos académicos en estas normas figuran en género gramatical no marcado. Cuando proceda, será válida la interpretación de los artículos correspondientes en género femenino, así como la cita en su caso.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

**Única.** Queda derogada la Orden del Rector 18/2013, de 20 de septiembre, que establece las normas sobre calificaciones.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.** Situaciones excepcionales. Las situaciones excepcionales no contempladas en el presente articulado serán resueltas por el Secretario General y, por su delegación, por el Vicesecretario General para el campus de Donostia / San Sebastián, previa presentación suscrita por el interesado de instancia razonada y justificada documentalmente, siempre en el marco legislativo universitario.

**Segunda.** Entrada en vigor. Estas modificaciones entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de la Universidad de Deusto.

***Orden del Rector 28/2017 de 27 de septiembre, por la que se modifica el Reglamento de Disciplina Académica aprobado por el Consejo de Dirección de la Universidad de Deusto el 19 de junio de 2008.***

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

A través de la presente Orden del Rector se introducen diversas modificaciones en el Reglamento de Disciplina Académica, que tienen por objeto actualizar su articulado para adecuarlo a la normativa interna que se ha ido promulgando en la Universidad de Deusto. Son las siguientes:

1. Se actualiza el Capítulo II dedicado a infracciones y sanciones para incorporar nuevas faltas graves y muy graves que otorgan la debida seguridad jurídica y permiten

rritako bideak erabiliz, eta kontsulta egunen ondoren berretsiko dira kalifikazioak.

4.4. Kalifikazio aktak sinatzeko ardura duten irakasleak Idazkaritza Orokorrera joango dira, horretarako ezarritako epearen barruan, aktak betetzera. Irakasleren batek ezintasun justifikatua badu, Fakultateko dekanoak ontzat emanda, haren saileko zuzendariak sinatuko du akta edo, bestela, dekanoak horretarako izendatutako pertsonak.

4.5. Irakasleek ebaluazio probako material idatziak —paperean zein euskarri elektronikoan—, edo bestelako erakusgarriak, hurrengo ikasturtea amaitu arte gorde beharko dituzte.

XEDAPEN INGARGABETZAILEA

**Bakarra.** Indargabetuta geratzen da Errektorearen 18/2013 Agindua, irailaren 20koa, kalifikazioen arauak ezartzen dituena.

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.** Egoera bereziak. Aurreko artikuluetan aurreikusi ez diren egoera bereziak Idazkari Nagusiak ebatziko ditu, eta, eskuordetuta, Donostiako campuseko Idazkariorde Nagusiak, interesdunak agiriz hornitutako eskabide arrazoitua aurkeztu ondoren, betiere unibertsitateko legegintza alorrean.

**Bigarrena.** Indarrean sartzea. Arau hauek Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

***Errektorearen 28/2017 Agindua, irailaren 27koa, Deustuko Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluak 2008ko ekainaren 19an onartutako Diziplina Akademikoaren Araudia aldatzen duena.***

ZIOEN AZALPENA

Errektorearen Agindu honen bidez, zenbait aldaketa egiten zaizkio Diziplina Akademikoaren Araudiari, artikuluak Deustuko Unibertsitatean argitaratuz joan diren barne arauei egokitzeko. Hona hemen aldaketak:

1. II. kapitulua eguneratu da, hots, arau-hauste eta zigorrei buruzkoa, beste falta astun eta oso astun batzuk eransteko eta, hartara, batetik, behar den segurtasun juridi-